

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure zerbitzua antolatzen ari ginela eta egin beharreko jarduerak adosten ari ginela, ohartu ginen gutako bakoitzak esparru desberdinetan abileziak ditugula, eta egin beharreko hainbat jarduera burutzeko gai garela. Beraz, kanpoko enpresa bat kontratatu eta bere esku utzi beharrean, guk egingo ditugu jarduera horiek. Horrela, gure produktua errentagarriagoa eta ekonomikoagoa izango da, eta etorkizunean etekinak lortzea errazagoa izango da.

Hortaz, taldeko kide bakoitzak zeregin bat edukiko du, bakoitzaren abileziak eta trebetasunak kontuan hartuta.

Maddik bere aitonarengandik heredatutako furgoneta du, egoera onean dagoena; beste herrietara materiala eramateko edo materiala eroatera joateko, gu garraiatzeko edo edozein arrazoiengatik herriz mugitzeko erabiliko duguna. Horregatik, Maddi taldeko gidaria izango da.

Naroa “enpresen administrazio eta zuzendaritza” graduan interesatuta dago. Beraz, aurrekontuak, fakturak, irabaziak, galerak eta abar, hau da, finantza arloko edozer gauza kontrolatuko du. Horregatik, Naroa taldeko kontularia izango da.

Saioa betidanik izan da pertsona irekia, eta pertsonekin hitz egiteko trebetasun handia du; horrez gain, tratuak egiten ditu edozein pertsonekin eta edozertaz inongo zailtasunik gabe. Beraz, bera izango da elkarteak egin behar diren enpresekin hitz egingo duena, eta bilera guztietara joango dena. Horregatik, Saioa taldeko tratularia izango da.

Annek aisialdiko begirale titulua du, beraz, bera izango da herrietan egingo ditugun ekintzak pentsatuko eta prestatuko dutenak, hots, ekintzen arduradunak. Nahiz eta Saioa, Cristina, Maddi eta Naroa bertan egon laguntzeko. Horregatik, Anne taldeko arduraduna izango da gure produktua burutzeko momentuan.

Cristina sare-sozialen munduan oso murgilduta dago, asko gustatzen baitzaio bere Instagram-eko perfila eguneratuta edukitzea. Beraz, bera izango da gure enpresaren webgunea kontrolatuko duena; nahiz eta Instagram-eko perfila denok erabili, bera izango da arduradun garrantzitsuena. Horregatik, Cristina taldeko “community manager” izango da.

Aipatu beharra dago, talde bat garela, eta horrek zera esan nahi du: gutako batek laguntza behar baldin badu beste taldekide guztiak laguntzeko prest egongo garela. Adibidez:

- Saioaren kasuan, bileretara bakarrik ez joateko, beste taldekideok txandakatu egingo gara elakarrekin joateko. Horrela, bertan hartu beharreko erabakiak ez ditu bakarrik hartu beharko.
- Maddiren kasuan, bera gaixotuz gero, beste edozeinek egingo luke gidari papera, denok baitugu gidabaimena.

Ondorioz, jarduera guztietatik batzuk guk geuk egingo ditugu, gai garelako; eta beste batzuk egiteko kanpoko enpresa bat kontratatuko dugu, egoeraren arabera moldatuko gara.

